



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko urriaren 3ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko urriaren 3an, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, GOICÖECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : FALXA Odile.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2023ko irailaren 29a

Afitxatze eguna : 2023ko irailaren 29a

### 1. ERABAKIA: 2023ko ERREPIDEEN DEIALDIAREN ESLEIPENA

*(1.1 nomenklatura – Deialdi publikoak)*

Auzapezak adierazi du, prozedura egokitu deialdia antolatu duela 2023an errepide obrak eginen dituzten enpresen hautatzeko.

Eskaintzak aztertu-eta, honako esleipena proposatu du:

- Carrières et Travaux de Navarre (CTN) enpresa, "125kg/m<sup>2</sup>-ko asfaltatzeak" atalarentzat, eta 75 891.00 € ZK-ko zenbatekoarekin.

Herri Biltzarrari proposatu dio horretaz erabakitzea, eta mahai gainean ezarri ditu eskuratu diren eskaintza guztiak eta horien analisi txostena.

Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari Carrières et Travaux de Navarre enpresarekin 75 891.00 € ZK-ko kontratua izenpetzeko.

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, horri loturiko erabaki oro hartzeko eta agiri oro izenpetzeko, besteak beste deialdiaren moldatzea, baldin eta zenbateko orokorra ekintza horretarako onartu diren kredituen azpitik egoten bada.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0  
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.  
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko urriaren 3an

Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/10/10ean publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/10/10ean.